

HIZKUNTZA AKTIBAZIOA

Nola piztu herritarrak hizkuntza errealitatea euskararen alde astintzeko?

📁 **EUSKARA /** Amagoia Mujika Telleria

Euskararen erabilera pizteko formula magikoaren bila bezala dabil euskalgintza, formula magikorik existitzen ez dela jakitun. Jakina dena da herritarrak piztea, aktibatzea, beharrezko baldintza dela hizkuntza errealitatea astintzeko. Aktibaziorako prozesuak eta gakoak ikertu ditu Soziolinguistika Klusterrak azken lau urtean, argi printza batzuk eskaintzeko.

Euskara dakitenak eta euskararen alde dau-denak gero eta gehiago diren arren, hortik euskaraz egite-ra koska bat dago, oraindik igotzea kostatzen den maila bat. Hori da, hain justu, euskararen sustapen lanetan da-biltzanentzat erdigunean be-te-betean dagoen kezka: Nola aktibatu herritarrak hizkun-

tza errealitatea eraldatzeko. 2015etik Soziolinguistika Klusterrak gidatutako lantal-de bat euskararen erabilera sustatzeko tokian tokiko akti-bazio-prozesuen ezaugarriak ikertzen aritu da. «Gipuzkoako Foru Aldun-diaren eskariz abiatu genuen ikerketa proiektua. Identifika-tu genuen euskararen erabile-ra areagotzeko garrantzitsua zela herritarrak aktibatzea. Erabilerak gora egiteko beha-

rezkoa da herritarrak subjek-tu aktibo izatea, horrek ekarri-ko baitu etorkizunean euska-raren erabilerak gora egitea. Hori izan da momentuko ira-kurketa eta herritarren akti-bazio hori sustatzeko zer gako eta zer prozesu egin daitezke-en zehaztearen eskaera jaso genuen. Horretan gauzatu da ikerketa», azaldu du Soziolin-guistika Klusterreko kide eta proiektuaren koordinatzaile Maialen Iñarrak.

Baina, aktibazioaz ari gare-nean, zertaz ari gara? «Aktiba-zioa hitza askotan lotzen dugu ekitaldi batekin, jaialdiren ba-tekin, ospakizun batekin. Egun bateko kontua bailitzan, de-nok plazan elkartuta. Baina az-kenean hori gauzatzeko aurre-lan handia dago, baita horren osteko lana ere. Hizkuntza ak-tibazioaz hitz egiten dugune-an, bere osotasunean ulertu behar da prozesua. Hizkuntza errealitatean eragiteko asmoz abiatzen den antolakuntza

prozesu batez ari gara. Gure ustez, gainera, antolakuntza prozesu hori elkarlan ireki ba-tekin eta modu malguan egin beharko litzateke, abiatzen di-tuen ekintza multzo horiek ahalik eta eraginkorrenak iza-teko. Prozesua bere osotasune-an hartuta oso prozesu luzea da eta olatuak ditu. Batzuetan puntu gorenak izango ditugu, ikusgarrienak egiten diren ekintza horiekin, baina gero noski apalaldiak ere badaude. Zailtasunak ere etortzen dira. Horiek ere aurreikusi eta ku-deatu behar dira aktibazio prozesu horretan», azaldu du Iñarrak.

AKTIBATZEKO GAKOAK

Alde batetik, tokian tokiko he-rritarrak euskararen jiran akti-batzeko zaindu beharreko ga-koak zeintzuk diren identifikatu ditu lau urteko ikerketak. Beste alde batetik, aktibazio horretarako proze-sua zein izan litekeen marraz-



Garrantzitsua da talde eragilea, motor lana egingo duena. GAUR8

AKTIBAZIORAKO BIDEAN GAKO BATZUK

Tokian tokiko hiz-kuntza-aktiba-zioa. Herritarrak eta euskara: akti-baziorako proze-sua eta gakoak» izeneko ikerketak lau urteko lana bil-tzen du. Herritarrak aktiba-tzeko gako batzuk identifi-katu ditu eta horiek martxan jartzeko pista bat-zuk ere eskaintzen ditu la-

nak. Hona hemen laburpen bat:

1 • Behar sozial bati erantzun

Aktibazio-prozesuak behar sozial bati erantzun behar dio. Behar horren kontzien-tzia edota zilegitasuna gizar-tean nahiko hedatua ez ba-dago, elikatu, estimulatu edo sorrarazi egin beharko

da lehendabizi, garrantzi-tsua baita herritarren kezke-kin konektatzea eta aktiba-tzeko nahia edota gogoa piztea. Horrela, herritarren babesa lor dezake proze-suak, eta sinesgarritasuna eta legitimotasuna eskura ditzake.

Nola? Diskurtso berritzai-leak erabil daitezke; aldaketa positibo batekin lotu; ilu-

tu edo proposatu du.

Hiru fasetan gauzatu da ikerketa. «Lehen fasean sei esperientzia izan genituen aztergai, beraien inguruan herritarrek aktibatzea lortu zuten sei ekimen: Gernikako Astra kulturarako fabrika soziala; Lasarte-Oriako Ttakun Euskara Elkartea, Emakumeen Mundu Martxa, Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimena, Otxandioko Herri-ola herrigintza egitasmoa eta Eibarko Akebai egitasmoa. Euskarari lotutakoak, baina baita beste arlo batzuetakoak ere, feminisмотik edo herrigintzatik sortutakoak kasu», azaldu du Iñarrak.

Esperientzia arrakastatsu horietatik gakoak identifikatu eta bigarren fasean bi eskuhartze kontrolatu gauzatu ziren. «Beharrezko ikusi genuen pare bat gunetara jotzea gako horiek nola landu daitezkeen ikusteko, aktibazio hori sustatzeko. Jakin izan genuen bai



Irudian, Maialen Iñarra, Soziolinguistika Klusterreko kidea eta ikerketaren koordinatzailea. Juan Carlos RUIZ | FOKU

sioa piztu eta ez da komeni inor kanpoan uztea.

2 • Oinarrizko teoriak eta diskurtsoak adostu

Oinarri hori lantzeak abiapuntu sendoa emango dio aktibazio-prozesuari. Hau da, hizkuntzaren eta herri mugimenduen alorreko teoriak eta proposamenak lantzea komeni da.

Edozein ekimen martxan jarri aurretik, aintzat hartzeak dira tokian tokiko aurrekariak eta giro soziala. Gainera, prozesuan zehar, komeni da beste esperientzia batzuen berri izatea eta formazio-

saioak tartekatzea, ibilbidean zehar ikasi egiten baita.

Nola? Diagnostiko soziolinguistikoak aintzat hartu behar dira eta beste herri mugimenduen proposamenak eztabaidatu. Ez da komeni aktibismo hutsean erortzea eta formatzeko eta ezagutzak trukatzeko egiturak sortu behar dira.

3 • Administrazio publikoak eta herri mugimenduak elkarlanean

Herritarren aktibaziorako, eragile sozialen arteko elkarlana eta eragile horien eta instituzionalen artekoa onu-

ragarria da ekimenaren babes sinbolikoa zabaltzeari begira, baita baliabide gehiago mobilizatzeari begira ere. Elkarlanean aritzeko, konfiantzazko harremana eraiki beharko litzateke. Horregatik, komeni da prozesuan parte hartuko duten norbanakoen nahiz eragileen arteko botere harremanak orekatzeari; hitza, erabakimena eta

protagonismoa partekatzea, alegia.

Ekimena alderdien arteko lehia politiko-elektoraletik blindatu eta aktibazio-prozesuak guztion babes politiko-instituzional osoa duela ziurtatzea komeni da. Era berean, gatazkak eta tentsioak kudeatu beharra dago, eragileen artean sortzen diren desadostasunak akordio negoziatuekin bideratuz.

Ekimena alderdien arteko lehia politiko-elektoraletik blindatu eta aktibazio-prozesuak guztion babes politiko-instituzional osoa duela ziurtatzea komeni da

Nola? Elkarrekin eraikitze-ko jarrera sustatu behar da, parte-hartzaile bakoitza eroso sentiarazi eta oreka mantendu. Gainera, erakunde publikoen, sozialen eta herritarren funtzioak adostasunez banatu behar dira eta erabakiguneak zehaztu.

4 • Modu horizontalean antolatu

Prozesuak iraun dezan, garrantzitsua da antolaketa-maila zaintzea. Egitura irekiak eta horizontalak sortu beharko lirateke, norbanakoen eta eragileen parte hartzea sustatzeko.

Tolosaldean bai Arrasaten bazutela kezka bat gai honekin. Hain zuzen, Arrasaten euskalgintzako eragile mordo bat dago, baina sentitzen zuten ez zirela asmatzen ari benetan Arrasateko herritarrak gai honetan aktibatzen. Tolosaldean ere bazen ekimen bat. Tolosako Galtzaundi Euskara Elkartek eskualdetzeko joera bat edo asmo bat adierazi zigun. Herri-eritiek eskualderako salto hori egiteko iruditu zitzaigun lagungarri izan zitezkeela ordu-ra arte identifikatu genituen gakoak lantzea. Bi gune horietan ondorengoa proposatu genuen: Guk orain arte identifikatu ditugun gakoak landu eta gune hauetan esku hartuz, irudika dezagun nola gauzatu prozesu bat herritarrak euskararen jiran aktibatzeko».

EUSKARALDIARI BEGIRATUA

Ikerketaren lehen bi faseak burututa zeudela, 2018. urtean pare-parean gertatu zen euskalgintzak sustatutako aktiba-



zio ekimen garrantzitsua: Euskaraldia. Hartara, interesgarri jo zuten Euskaraldia ere iker-tzea, herri aktibaziorako gako garrantzitsuak ukitu baitzitu- en Euskal Herri mailako eki- men sonatuak. Izan ere, akti-

bazioaren ikuspuntutik ertz interesgarriak ditu Euskaral- diak. «Erakunde publikoek eta gizarte eragileek elkarlanean herritarren hizkuntzaren in- guruko aktibazioa bultzatzeko ekimena izan da; beraz, bete-

betean sartzen da tokian toki- ko aktibazioko ikerketa proiektuaren oinarrien ba- rruan. Bestetik, izan duen he- dapenak aukera handia ema- ten du ekimen bera toki desberdinetan nola garatu den jakiteko», jasotzen du ikerke- tak.

EZ DAGO FORMULA MAGIKORIK

Euskararen erabilera pizteko formula magikorik ez dago, baina badira metxa indar- tsuak, herritarrek piztuak, eta horiek identifikatzea izan da ikerketaren helburua. «Zaila da, azkenean aktibazio proze- suak oso prozesu konplexuak dira, modu pausatuan eta epe luzean gauzatzekoak. Ez da egun batetik bestera lortzen dena. Ez dugu ahaztu behar aktibazio prozesu batean his- torikoki finkatutako ohitura batzuk eta egitura batzuk eral- datu nahi izaten direla. Akti- bazio prozesuek beti dute hel- buru positibo bat, behar bat edo kezka bat identifikatzen

Aniztasuna zaintzea fun- tsezkoa da: generoan, adine- an, joera politikoan, klase so- zialean, jatorri kulturalen...

Euskalgintzatik haragoko oinarri zabalago batekin (era- gileekin nahiz herritarrekin) ere zubiak eraiki beharko lira- teke, hartzaile hutsak izan ez daitezten.

Gainera, konpromiso-maila guztiak kontuan hartu behar dira prozesuan, eta, beraz, praktikan parte-hartze maila desberdinak egoteko bideak aurreikusitako beharko lirateke.

Nola? Erakundeen eta nor- banakoen egoerak kontuan

hartu behar dira, guztiei mo- du berean entzun eta elkarri ezinbesteko direla sentiarazi. Denek izan behar dute ahotsa eta erabakimena, modu ore- katuan, eta parte-hartzaileen dedikazio posibleak hasiera- tik argi utzi behar dira. Parte- hartzaile guztiek prozesua be- re egitea komeni da.

5 • Talde eragilea eratu

Beharrezkoa da ekimenaren trakzio-lana egingo duen tal- dea zehaztea. Idealena litzate- ke talde hori zabala, heteroge- neoa eta berria izatea (orain arte elkarrekin jardun ez due- na). Bere egitekoa izango da

ardurak hartzea, egitasmoak proposatzea, harremanak sor- tzea, sarea handitzea...

Sare guztiaren barrura zein kanpora begira egin beharko du lan. Ondorioz, talde ho- rren osaketa berariaz landu behar da; izan ere, ezaugarri jakin batzuk eduki behar li- tuzkete taldekideek: sorme- na, indarra, ausardia, umo- rea... Hori lortzeko, profil

desberdineko kideak beharko ditu taldeak. Taldea zenbat eta askotarikoagoa, orduan eta irismen handiagoa; kon- tzentzienteki talde bilakatzeko pausoak eman behar dituzte kideek.

Nola? Harreman eta giro ona zaindu; tarte informalak ere partekatu, elkar zaindu; txandakatze-sistemak erabili;

Ekimenaren trakzio-lana egingo duen talde eragilea osatzea beharrezkoa da. Ezaugarri batzuk izatea komeni da: sormena, indarra, ausardia, umorea...

iritzi kontrajarriak ageriko egin eta landu.

6 • Prozesua nola egiten den zaindu

Aktibazio-prozesuari helburu argiak eta ausartak ezarri be- har zaizkio, norabide jakinean lan egiteko. Plan bat finkatu eta ekimen zehatzak eta sin- pleak asmatzea komeni da.

Sorkuntza-lan hori bidera- tzeko, prozesu malgua susta- tu behar da, eta zailtasunak eta apalaldiak gainditzeko prestatu behar da.

Barne zein kanpo komuni- kazioa zaindu behar dira, eta garrantzitsua da bereziki lan-

«Aktibazio prozesuak oso prozesu konplexuak dira, modu pausatuan eta epe luzean gauzatzekoak. Eraldaketa bat suposatzen duen neurrian, ez da prozesu erraza izaten»

Hauek dira gakoetako batzuk: Behar sozial bati erantzun, teoriak eta diskurtsoak adostu, administrazioaren eta herri mugimenduen elkarlana, modu horizontalean antolatu...

delako, egungo errealitatean eraldatu nahi duguna. Eraldaketa bat suposatzen duen heinean, konplexu bihurtzen du guztia», egin du gogoeta Maialen Iñarrak.

Hartara, “Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa. Herritarrak eta euskara: aktibaziorako prozesua eta gakoak” izeneko ikerketaren emaitzak konplexutasun horren barruan ulertu behar dira.

«Ikerketa egin ostean eskuratu ditugun emaitzak ez dira hartu behar aktibaziorako huts egiten ez duten errezeta ziur moduan. Hainbat esperientzia izan ditugu aztergai lau urtean zehar, hamaika esperientziatik gora aztertu ditugu, baina az-

kenean tokian tokiko errealitateak, ohiturak, egiturak... bakoitzak bereak ditu eta ikerketaren bidez eskuratu ditugun emaitza hauek tokian toki egokitzeko modukoak dira eta, gainera, egokitzapen horiek egin behar dira. Ondorioak modu malguan hartu behar ditugu eta eraldatu nahi dugun errealitatera egokitzeko gaitasuna izan behar dugu», egin du zehaztapena ikerketaren koordinatzaileak.

Akaso, toki batean funtzionatzen duenak beste batean ez du funtzionatzen eta garai batean funtzionatzen duenak beste garai batean ez.

«Saiakera egin dugu oinarrizko gakoak identifikatzeko



Alboko orrialdean, euskararen aldeko mintzodromoa Donostian. Lerro hauen gainean, euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko manifestazioa.
Juan Carlos RUIZ - Jon URBE | FOKU

eta edozein momentutan eta edozein tokitan gaudela ere, identifikatu ditugun sei gako horiek buruan izateko». Gako horiek, tokian toki, gehiago edo gutxiago gara daitezke. «Gu puntu honetara iritsi gara, baina badago sorpresa faktorea, edo ikusi ezin daitekeen gertaera bat. Gerta daiteke gertaera hori izatea hain justu herritarrak aktibatzea lortzen duena», esan du Iñarrak.

Proiektuan Soziolinguistika Klusterraren eta Gipuzkoako

Foru Aldundiaren bidelagun izan dira EHUko Parte Hartuz Institutua, Elhuyar, Emun, Euskaltzaleen Topagunea, Donostiako Udala eta tokian tokiko hainbat eragile: Astra, Ttakun euskara elkarte, Herri-ola egitasmoa, Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako, Emakumeen Mundu Martxa, Akebai, Arrasateko eta Tolosaldeko euskalgintza eta Arrasate, Donostia, Erretereria, Hondarribi eta Ikaztegiako Euskaraldiko batzordeak.

tzea emozioen eta harremanen arloa: entzuketa aktiboa eta integratzailea, hurbiltasun afektiboa, malgutasuna, umorea eta alaitasuna, bestearen zailtasunekin enpatiaz jokatzeko, besteak diren moduan onartzea.

Nola? Tokian tokiko berezitasunetara egokitu; ekin-tza ikusgarriak eta origina-lak egin; kalea eta eguneroko harreman informalak geureganatu; aurrez aurreko harreman pertsonalak baliatu eta sinboloak landu eta ilusioa elikatu.



Herritarrak aktibatzeke garrantzitsua da kezka edo behar sozial bat izatea oinarrian. Irudian, Iruñean haur eskola euskaldunen aldeko ekimena.
Jagoba MANTEROLA | FOKU